

GERNIKA-LUMO / Ume zein gurasoentzako jarduerak antolatu ditu udal liburutegiak

Gaur gurasoentzako hitzaldia emango dute, eta urtarrilaren 2ra arte, beste hiru saio izango dira.

O. CABELLO

Gurasoentzako zein umeentzako jarduerak antolatu ditu Gernika-Lumoko udal liburutegiak Gabonetarako. Gaur bertan hasita, urtarrilaren 2ra arte lau saio izango dira.

Gurasoei eta irakasleei zuzenduta, gogoeta egiteko hitzaldia emango du gaur bertan Juan Carlos Alonso psikologoak. Hain zuzen, haurren garapen psikoafektiboan fantasiak eta literaturak duten garrantziaz ariko da. Hitzaldia Elai-Alai areto txikian emango du, 19:00etan.

Abenduaren 23an izango da bigarren saioa, eta Ixabel Millet ipuin kontalaria izango da umeei zein nagusiei Gabonetako euskal ipuinak kontatzen. Saio hori familia giroan gozatzeko ikuskizuna izango dela adierazi dute antolatzaileek.

Haurrei bereziki zuzenduta

Abenduaren 26an eta 2010eko urtarrilaren 2an ere Ixabel Millet izango da Elai-Alai areto txikian, umeentzako ipuinak kontatzen. 26an 'Elkar maite' ipuin kontakizuna eskainiko du, 17:00etan, 6 eta 11 urte bitarteko umeentzat.

Urtarrilaren 2an, berriz, 'Animaliak mintzo ziren garaian' kontatuko du, eta ordu erdiko bi saio emango ditu: 17:00etan 1 eta 3 urte bitarteko haurrentzat kontatuko du ipuina, eta 17:30ean 3 eta 6 urte bitartekoentzat.